




Jaunarena leitzarra garaile kadeteetan, Joxean Tolosa Pilota Txapelketan

AMEZKETA ▶ Antolatzaileek azaldutakoaren arabera,
«aurtengo txapelketan ez da ezusteko handirik izan» ▶ 5



Herenegun Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finaleko une bat. ANDER OTEZABAL



Inauguratu dute San Miguel parrokia

IRURA ▶ Herenegun egin zuten lehenengo
meza parrokia eraberrituan hamabost
hilabete iraun duten obrak eta gero ▶ 4

hitza
argazki
lehiaketa

**bidali udako
oporretako
argazkia**

ARGAZKIAK NORA BIDALI
▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
▶ Postaz:
Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza,
Araba etorb. 5. atzea • 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako
HITZAREN egoitzelara ekarri
OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

2. saria

3. saria

Mendexa-Lekeitiko
VILLA ITSASO hotelean
**bi pertsonentzako
asteburua.**

Talasoterapia
Zelai
ZUMAITA
Zumaiako **TALASOZELAI**
tarasoterapia zentroan
bi pertsonentzako zirkuitua.

Tolosako **DENAK** tabernan
lau pertsonentzako afaria.

irailaren 18tik aurrera zabalik

azoka

Euskal Herria kalea, 45 • Ibarra • ☎ 943 67 62 70

EUSKARA ▶

Kirmen
Uriberen
'Agian' filma
gaur, ikusgai

Aitzol Euskaltegiaren
25. urteurrenaren
ekitaldien baitan,
antolatuta dute

ERREDAKZIOA

25. urteurrena dela-eta, Aitzol Udal Euskaltegiaren Kultur Astea antolatuta dute. Atzo ekin zioten egitarauari argazki, kartel eta material erakusketarekin, eta zabalik izango da ostiralera arte. Gaur, 20:00etan Kirmen Uriberen *Agian* filma izango da doa, Kultur Etxean.

Bestalde, aurreko ikasturteetan euskaltegiaren ibili eta mailaren bat egiaztatu duten ikasleek diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dute urriaren 10era arte. Informazio gehiago euskaltegiaren (943 651006) edo HABEN (www.habe.euskadi.net).

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ **Renfe:** 902 24 02 02
- ▶ **Donostiako autobusa:** 361740
- ▶ **Tolosaldea bus:** 650621
- ▶ **Leitzaran autob.:** 948 221015
- ▶ **Taxia:** 670420
- ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

- ▶ **Ertzaintza:** 538820
- ▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
- ▶ **Tolargi:** 650016
- ▶ **Iurramendi egoitza:** 670325
- ▶ **Tolosa gasa:** 675320

KIROLAK ▶

Constanza lakuan
bere azken erronka
gainditu du Peñak

65 kilometro egin ditu igerian bizkarrez hiru egunetan;
hurrengo erronkan Sella ibaia zeharkatuko du tolosarrak

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den ostiralean abentura berri bati ekin zion Carlos Peña tolosarrak. Austria, Alemania eta Suitzaren arteko mugan dagoen Constanza lakua zeharkatzea zuen helburu, kasu honetan, eta ohikoa den moduan, igerian eta bizkarrez egin behar zuen. Ostiralean ekin zion abenturak igandean izan zuen esperotako amaiera, izan ere, 3 egunen ostean, helmugara iritsi zen igerilaria.

Denera, 65 kilometro egin behar zituen; horretarako, ostiralean Lindeo herrian hasi eta 6 ordu eta erdi egin eta gero, Friedrichshafen-era iritsi zen; larunbatean 10 orduz egon zen igerian eta Constanzaraino iritsi zen, eta igandean, berri, 7 ordu igeri egin eta gero, Radolfzell-era. Tolosarrak egoera ezin hobean igeri egiteko aukera izan du, eguraldi onarekin, eta uraren temperatura 17 gradutan zela.

Global Nature Fund elkarteak gonbidatu zuen Peñak lakura, bertan egun hauetan Fokus Natur argazkilaritza eta naturarekin lotura duen azoka egin baitute.



Goian, Carlos Peña Constanza parean igerian, eta behean, proba amaitu eta gero, Global Nature Fund-eko lehendakariarekin. HITZA

CARLOS PEÑA ▶
IGERILARIA

«Gogorra izan da, baina zortea nire alde izan dut»

Constanza lakuko erronka gaindituta, hurrengoa zein izango den argi du Carlos Peñak (Tolosa, 1965) igerilari eta abenturazaleak.

Gustura geratu zara azken abentura amaituta.

Oso gustura, esperientzia polita izan baita. 3 egunak oso onak izan dira, ez baitu oztopo berezirik izan igerian egiteko. Gainera, bertan egin den azoka ikusteko aukera ere izan dut.

Global Nature Fund elkarteak gonbidatuta joan zara.

Bai, hala da. Naturarekin zerekin duten ekimenak antolatzen dituzte, eta hau horietako bat zen. Hain zuzen ere natura eta argazkilaritza lotzen zituena, ikusgarria benetan.

65 kilometroko lakua zeharkatu duzu, bizkarrez igerian. Zu horrelakoak egiten ikustera ohituta gaude, baina, gogorra dela esan behar da.

Bai. Oso gogorra da, pentsa egun batean 10 ordu ere egon nintzen. Baina, kasu honetan zortea nire alde izan dut.

Hurrengo erronka?

Sella ibaia zeharkatuko dut, eta horrekin aurtengo denboraldia amaituko dut. ◀

GIZARTEA ▶

Txinpartak
irabazi du
Oriako bandera

Erredakzioa ▶ Gure Txokoa eta Txinparta elkarten arteko dema bitxia ikusteko aukera izan zen herenegun. Batelen gainean jarri eta Ori ibaian, Napar Zubia eta Zubi Berriaren artean burutu zuten desafioko, eta bi elkarteetan azkarrena Txinparta izan zen. Angelusa erreza ondoren, eguerdian hasi zen ikuskizuna, eta jende ugari gerturatu zen bai Zerkasira bai eta inguruetara ere desafioko ikustera, giro polita nabarmendu zelarik. Lehia amaitu ostean, bazkarian elkartu ziren parte-hartzaileak. I.T.

ASIA ▶

Uda euritsua izatea ongi etorri da

Gipuzkoan orohar turismoa jaitsi egin bada ere, Tolosan mantendu egin da

ESTI EZEIZA

Uda euritsua izan delako, jende gehiena kexati izan bada ere, hau onuragarri izan da Tolosarentzako. Hala azaldu zuten atzo turismo datuen aurkezpenean, Olatz Peon alkateordeak; Joxe Luis Urdangarin, Tolosaldea Garatzeneko Kudeatzaileak eta Roberto Ruiz, Ostalaritzako ordezkariak.

Luzatutako datuen arabera, euskaldunak dira Tolosaldera etortzen diren bisitari gehienak, Donostia aldekoak hain zuzen ere. «Horregatik, eskualdearen promozioa egiteko garraian, turista hauen jatorria kontuan hartu behar da» azpimarratu zuen Urdangarinek. Honen harira, ekimen berri bat

jarri zuten martxan, joan den abuztuan. Hala, informazio gune bereziak jarri zituzten Donostiako Aste Nagusian, eta Ordiziako Gazta azokan. Honen helburua, «ekitaldi jendetsuetan Tolosaren presentzia izatea zen», azaldu zuen Tolosaldea Garatzeneko kudeatzaileak. Bestalde, azpimarratu zuen, promozio jardueraz gain, dinamizazioan ere lan handia egin beharra dagoela. Izan ere, Tolosa hiri erakargarria izan arren, inguruko herriekin lotzen duen eskaintza interesgarri bat landu beharra dagoela uste du Urdangarinek.

Roberto Ruizek aipatu zuen, Tolosaldeko turismoa sustatzeko, gehien landuko den irudia gastronomiarena izango



Gero eta jende gehiago ikusten da larunbatetako merkatuan, argazki kamera eskuetan duela. HITZA

dela. Honenbestez, sektore pribatu eta publikoaren arteko lankidetzaz ezinbestea dela nabarmendu zuen. Honekin batera, aipatu zuen, eskualdearen promozioa egiteaz gain, garrantzitsua dela zerbitzu sektore indartsua izatea, «jendeak hona etortzean, inguruak ikustearekin batera, zerbitzu ona ere jaso nahi baitu». Bestetik, aipatu zuen, azken lau urteetan aldaketa ugari eman direla To-

losako turismoan. «Aurreko urteetan jendea hemendik joan egiten zen eta desertizazio arazo bat ematen zen abuztuan. Orain, aldez, hona etortzen dira» azaldu zuen sukaldariak. Aurkezpenean azaldu zuen ere, garrantzitsua dela udako turismoan bakarrik ez zentratzea, eta urte guztikoaz arduratzea. Bere ustez, hau, orekatuagoa baita. Espezializazioaren beharra ere nabarmendu zuen

Roberto Ruizek, «honekin, jende gehiago hurbiltzea lortuko baitugu».

Iaz bezala, aurten autobus berezi bat izan da Donostiatik Tolosara etorri eta hirigunea bisitatzeko. Bestalde Aranburu Jauregia zabalik egon da, Iñaki Linazasororen erakusketa ikusteko. Hauek, eta Gorrotxategi museoak izan direlarik toki bisitatuetakoak. Hauekin batera, nola ez, Alde Zaharra.

GIZARTEA ▶

Bioetanolari buruzko hitzaldia eta ibilgailu erakusketa izango dira gaur

Mugikortasun Iraunkorraren astean hainbat ekitaldi izango dira

ESTI EZEIZA

Aste honetan, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ari da ospatzen. Hori dela eta, herenegun hasi ziren honekin lotutako ekitaldiak eskualdean. Aurten lehendabiziko aldiz Tolosako Tokiko Agenda 21ek, Ernioaldea Udaltalde 21ekin elkarlanean antolatu ditu ekintzak. Bestalde, lehendabiziko aldiz ospatuko dute San Lorenzo Udaltalde 21 osatzen duten herriek: Ibarra, Berastegi, Belauntza, Berrobi eta Elduain. Burutuko diren ekintzekin eskualdean mugikortasun iraunkorra bultzatzea da aste honen helburua. Aurtengo gai nagusia ibilgailu pribatuak hartzen duen espazio publikoa izango da, *Kaleak guztiontzat* lelopean.

Mugikortasun iraunkorrek garraio bideen arrazoizko erabilera bat lortzeko ekintzak eta

prozesuak hartzen ditu bere baitan. Errepedeetako ibilgailu kopurua gutxitzeaz gain, azpiegitura berriek eragindako inpaktuak txikitzea eta zentzudunagoa den bizimodu bat bultzatzea da bere helburua.

Ekitaldiz betetako astea

Herenegun eman zioten hasiera Mugikortasun Asteari, Pedalaren Egunarekin. Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, eskualdeko hainbat haurrek hartu zuten parte txirrindulari proba honetan. Lasterketa Tolosako kaleetan zehar izan zen, igande goizean.

Aste honetarako antolatutako ekintzen baitan, bihar, Ibarrrako Uzturpe Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrek isun sinbolikoak jarriko dizkiete gaizki aparkaturiko autoei. Etzi berriz, apustu berezi bat egingo dute: ga-

rraio bideen arteko apustua. Bizikletaz, oinez eta kotxez, erostekak Ibarrrako kaleetan zehar norik lehen bukatu jokatuiko dute.

Gaur, 19:30ean, Bioetanolari buruzko hitzaldia izango da Tolosako udaletxean. *Bioerregaiak, ekologikoak al dira?* izenburupean, galdera honi erantzuten saiatuko dira Enrique Monasterio (EVE, Garraio Unitatearen arduraduna - CADEM) eta Alex Fernandez Muerza (CI-TEC, Ciencia y Tecnología aldizkari kazetaria). Bestalde, goizez eta arratsaldez, Plaza Zaharrean, elektrizitatea eta ohiko erregaia kartzatzen dituzten kotxeak izango dira ikusgai.

Tolosan eta Ibarrran gaur burutuko diren ekitaldiez gain, Asteasun ere izango da zerikusirik. Hala, 17:00etan, bizikletaren txekeoa egingo dute Kiroldegian.



Ekintzei hasiera emanez, Pedal Eguna ospatu zen atzo Tolosan. I. T.

Bigarren eskuko azoka

Hilaren 22an, Mugikortasunarekin lotutako bigarren eskuko materialen azoka egingo dute Villabonan, Errebote plazan. Hau, 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Azoka berezi honetan, herri-tarrek, etxean dituzten mugikortasunarekin lotutako materialak saltzeko aukera izango dute. Mugikortasunarekin lotutako edozein material izan daiteke: bizikletak, trizikloak, patinak, kaskoak, kilometro kontagailuak, mailotak...

Azoka antolatzeko, osteguna arte material bilketa egingo dute honako puntuetan: Aduña, Irura eta Zizurkilgo udaletxeetan, 09:00etatik 14:00etara; azken honetan, Aurrerako bulegoetan ere. Anoetan, udaletxera deituta; Asteasuko udaletxean 09:00etatik 14:00etara, eta hilaren 19an, 16:00etatik 19:00etara. Tolosa eta Villabonan berriz, udaletxean eta udaltzaingoan, goiz eta arratsaldez. Materiala dakarrenak berak jarriko dio ekarritakoari salneurria, eta dirua berarentzat izango da.

IRURA ▶ GIZARTEA

Herritarrek inauguratu dute

Herenegun egin zuten lehenengo meza parrokian, 15 hilabeteren ondoren

IMANOL GARCIA

Azkenean irurarrek meza ospatu ahal izan zuten herenegun herriko San Miguel parrokian. 15 hilabeteko obren ondoren, eliza eraberrituaren inaugurazioa egin zuten. Ekitaldi ofiziala San Miguel egunean izango da, festen baita. Ordurako Gipuzkoako gotzainari eta Foru Aldundiari gonbidapena luzatu zaio.

Herenegungo mezaren ondorengo herritarrei eliza eraberritua erakutsi eta obren nondik norakoak esplikatzeko izan zen. Joxi Lasa Eliz Batzordeko kideak azaldu duenez, «herritarrei gustatu zaizkie egindako berrikuntzak». 100 lagun inguru joan ziren elizara eta dezentek meza ondoren berrikuntzak bisitatu zituzten.

Eraberritzea barrutik eta kanpotik egin dute. Kanpokoari dagokionez, teilatua guztiz berritu da. Absidearen horma, liburutegiari begira dagoena, guztiz txukundu da. Junturak ondo jarri dira, harri batzuen ordez morteroa erabili da gero harri itxura emanez eta eliza egin zenean zituen koloreak berreskuratu. Modu horretara, kolore ezberdinetako pareta gelditu da.

Eraikineren barnealdean, berogailu eta argi instalazio guztia aldatu dute. Orain gasaren bitartez funtzionatzen du berogailuak. Laster, argiak, berogailua eta kanpaiak ere ordenadore bidez erregulatu ahal izango dira. Elizaren behe solairuko egurra dena aldatu da eta zenbait harri berri jarri dituzte. Aldarearen alde batean dauden bi leihoak ireki dira ere. Sakristia ere erabat berritu da eta komuna ere jarri da. Goiko solairuan, museo txiki bat jarri dute elizak izandako irudiekin eta karraka zahar batekin, Ostiral Santuetan mezara deitzeko erabaltzen zena.



Elizari barrutik zein kanpotik berrikuntzak egin dizkote. I. GARCIA



Elizaren goiko solairuan museo txiki bat jarri dute. I. GARCIA



Gasaren bidezko berogailu berriaren instalazioak. I. GARCIA

Aurrekontua: 735.000 euro

Guztira 735.000 euroko aurrekontua du elizaren eraberritzeak, hasieran aurreikusitakoa baino %22,5 gehiago. Kutxari 180.000 euroko mailategua hamar urtetarako eskatu diotela azaldu du Joxi Lasak. Foru Aldundiak 300.000 euro eman ditu; Udalak 90.000 euro; Gotzaitegiak 60.000 euro eta Kutxa 10.000 euro.

Herritarren laguntza ere ezinbestekoa da eraberritzea ordaindu ahal izateko. 45 familia ari dira hileroko kuota bat ordaintzen. «Ez da kuota jakin bat, bakoitzak nahi duena ematen du», azaldu du Lasak. Oraingoz 80.000 euro inguru lortu dituzte herritarrek emandako arekin. ◀

ASTEASU ▶

Kiroldegiko ikastaroetan izen-ematea ostirala arte

ERREDAKZIOA

Asteasuko kiroldegian hainbat ikastaro egiteko aukera dago ikasturte honetarako. Ostiralera arte dute epea interesatuek izena emateko. Ondorengo ikastaroak egin daitezke: hirugarren adinekoentzat gimnastika, aerobik, mantenuko gimnasia, yoga, pilates eta ciclo indoor.

Ikastaroen prezioa 140 eurokoa da, hirugarren adineko gimnasiarena ezik, 80 eurokoa baita. Abonua ordaintzen dutenek %20ko deskontua dute.

VILLABONA ▶

Hainbat ikastaro egiteko aukera Olaederran

ERREDAKZIOA

Villabonako Olaederra kiroldegian ikasturte honetarako hainbat ikastaro antolatu dituzte. Dagoeneko irekita dago epea bai bazkideentzat bai ez direnentzat izena emateko. Ondorengo jarduerak egin daitezke: akuagyma, aerobik, mantenu gimnasia, prestaketa fisiko intentsiboa, yoga, cycling, helduen igeriketa, GAP, bosu-GAP, bosua, multifitnes, pilates, multiekin-tza, cycling gazteentzat, judo, gimnasia erritmikoa, igeriketa eskola, umeen igeriketa eta haurtxoen igeriketa.

Ikastaro batetik bestera kostua aldatu egiten da, beraz komeni da kiroldegiarekin harremanetan jartzeari prezioak kontsultatzeko.

hitza

Harpidedunen txokoa

Ibarrako **Alurr** dantza taldeak **bere historia biltzen duen liburua** argitaratu berri du. Liburu honen **4 ale zozketatuko ditugu** gure harpidedunen artean. **Zorte on eta adi egon!**

Parte hartzeko, deitu 09:00etatik 13:00etara telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



LIZARTZA ▶ POLITIKA

Ezker abertzaleak manifestazioa deitu du larunbaterako

Regina Otaolak (PP) XI. Gregorio Ordoñez Saria jasoko du «herritarrekiko jarrera fidela mantendu duelako»

ASIER IMAZ

Herriko festetako «gertaerek» zeresana ematen jarraitzen dute Lizartzan. Herriko ezker abertzaleak, manifestazioa deitu du larunbat honetarako, hilak 22, hain zuzen ere. Deialdia 19:30erako da eta herrian «gertaturikoa ozenki salatzea» izango du helburu.

Atzo emaniko prentsaurrekoan, Lizartzako ezker abertzaleak «Espainia aldetik, Regina Otaolak (PP) bideraturik festei eginiko aportazioa» salatu du. «Ostiral goizean, Frankismoaren garaitik herriko udaletxean egon ez den ikur espainola jarri ziguten. Eta larunbat goizean herriko ermitara etorri ziren, bere bizkartzain eta erztzaintzaren dispositibo ezin zabalagoarekin».

Gaur egun herriko alkate den Otaolari, postu horretarako herriak «ez duela aukeratu» gogoratu zioten. «27 botorekin herria ez du ordezkatzeko eta ondorioz gure herria ez dugu PPrek alkaterik onartuko. Otaolak Lizartzako herritarren borondatearen kontrako mespretxurik goren adierazten du».

«Guztiak gara epaituak»

Herritar bat Auzitegi Nazionalan, «PPren agintarien bertsioarengatik epaituak» dutela salatu dute. «Urteetako kartzela zigorra eskatzen dute; herritarrak, bai prentsa bai zuzenean irainduak izan garenean. Herritar guztiak gara epaituak, gure hitza eta erabakiari erasotzen baitiote. Gure herrikide



Lizartzako ezker abertzalearen prentsaurrekoa. A. IMAZ

eta lagunei, elkartzan osoa adierazi nahi diegu, Madrilen egingo den epaiketa bertan behera gera dadila exijitzen dugu».

EAJ eta Ertzaintzaren aurkako hitzak ere entzun ziren ezker abertzalearen agerraldian. «Bide batez, PPK istilu horiek sortzeko erabili dituen Ertzaintzaren jokabidea salatu nahi dugu, azken hauek herritarren hitza eta erabakia zapaldu eta zigortu egin baitute. PPK EAJren laguntza osoa jaso du oraingoan ere».

«PP, ausart bakarrak»

PPren ordezkariak bere alde, prentsaurrekoa eskaini zuten atzo Donostian, alkatetzan daramatzaten hiru hilabete

hauen balorazioa egiteko. Maria Jose Usandizaga, Gipuzkoako PPrek presidentea, hitzegin zuen Regina Otaola, Lizartzako alkatea, ondoan zuela. Usandizagak euren alderdia, PP, «askatasunaren eta legearen defendatzaile bakar» bezala aurkeztu zuen, «ETAren jarraitzaileek ezartzen duten beldurraren legea hausten» ari direla gaineratuz.

Horretaz gain, atzo jakin zenez, aurtun Regina Otaolak jasoko du XI. Gregorio Ordoñez saria, «bere ausardia eta duintasunagatik eta bere herritarrekiko jarrera fidela mantendu duelako». Gregorio Ordoñez Saria, besteak beste, Jose Maria Aznar, Fernando Savater eta Baltasar Garzonek jaso dute.

IBARRA ▶ BELA

Xabi Fernandez Europako txapelkun

A. IMAZ

Iker Martinez hondarribitarrak eta Xabi Fernandez ibartarrak Europako Txapelketa irabazi zuten asteburuan, Sizi- lian (Italia) lehiatutako Medal Race bela txapelketan.

Bi euskaldunak lau proba falta zirela jarri ziren sailkapenaren buruan 49er klasean. Igandean jokaturako azken lehia, bigarren postua eskuratu zuten, urrezko domina lortzeko nahikoa suertatu zi-

tzaierarik. Xabi Fernandez eta Iker Martinezek osatzen duen bikoteak, bigarren aldiz lortu du Europako txapelkun titulua, lehena, 2002. urtean Norwegian irabazi ostean. Horretaz gain, 6 domina ere lortuak dituzte Europa mailan.

Iker Martinezen hitzetan, «txapelkun geratu izana, denboraldia amaitzeko modu bikaina izan da; atsedean hartzeko eta hurrengo denboraldia prestatzeko, lasaitasuna emango digu emaitza honek».

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA



Herriko jatetxeak antolatutako kirol festan, behorra irabazle

A. Imaz ▶ Belauntzako jatetxeak herenegun kirol festa antolatu zuen herria. 12:00etatik aurrera, ekitaldi ugari alaitu zuten herria. Lehenik, zaldia eta behorren arteko lehia ikusi zuten; 2.000 kiloko harriarekin, behorra nagusitu zen zaldiak baino 6 plaza gehiago eginaz. Ondoren, bertso bazkaria eta aizkolariak aritu ziren, Mus txapelketarekin eguna amaitzeko. A. OTEZABAL

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ LEITZAKO III. PILOTA TXAPELKETA

Txikienak Amazabalgo finalerdietan lehiatu dira

Nagusi, kadete eta gazteen artekoak datorren asteburuan jokatuko dituzte



Hasiberri, benjamin eta haur-kategoriakoak lehiatu ziren. HITZA

N. GARZIA

Asteburu hau Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketaren barruan lasai xamarra izan da, asteburu ostiral, larunbat eta igandeetan norgehiagokak jokatzeko diren arren, joan den asteburuan larunbatean soilik jokatu baitzituzten. Aurrera Pilota Eskolak erabaki hau hartu zuen hainbat pilotarik beste zenbait txapelketatan parte hartu behar zutelako.

Finalurreko lehenengo partidak izan dira Amazabalen larunbatean jokatu zituztenak eta hasiberriak, haur-

kategoriakoak eta benjaminak lehiatu ziren. Gaintzeko norgehiagokak datorren asteburuan jokatuko dituzte, ostiral eta igandean.

Emaitzak hauek izan ziren: Bakaikoa-Eskudero 18 eta Mariezkurrena-Zabala 10 (benjaminak), Errandonea-Eraso 9 eta Mendia-Peña 18 (benjaminak), Olano-Andueza 17 eta Dario Mitxelena 18 (hasiberriak), Iribarren-Hernandorena 2 eta Sanjurjo-Jaka 18 (haur-kategoria), Saralegi-Tolosa 18 eta Gario-Gil 13 (hasiberriak), Jaunarena-Arratibel 18 eta Gaztañaga-Lasa 12 (haur-kategoria).

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxea VI.aren eta Barriolaren indarra

Leitzarrek indartsu daudela erakutsi zuten igandean, Logroñon jokatuako partidaren

N. GARZIA

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxeak bikote paregabean osatzen dutela begibistakoa da, Donostia Hiriko Txapelketa irabazi ezezik herenegun San Mateo Feria Txapelketako lehenengo partidara irabazi baitzuten.

Igandean Logroñoko Adarraga pilotalekuan jokatuako partidak 85 minututako iraupena izan zuen eta leitzarrek

galtzen hasi ziren arren (Irujo eta Beginok 10 tanto lortu zituztenean, Barriola eta Bengoetxea VI.ak 3 besterik ez zituzten lortu), partidak aurrera egin ahala aurrea hartzea lortu zuten. Honela, nahiz eta Begino eta Irujok lehenengo 14 tantoak nahiko erraz egin zituzten, hortik aurrera nekeak gainbehera ekarri ziren. Barriolak eta Bengoetxea VI.ak ia zuzenean 22 tantoak eskuratzen zituzten bitartean.

LEITZA ▶ GIZARTEA

700 pertsona inguru Plazaolan Natur Bideen Egunean

Maratoiean eta bizikleta martxan parte hartzeko aurretik izena eman zuten parte-hartzaileen kopurua bikoiztu zen



Txirrindulan ibilbiderik luzeena 40 kilometrokoa izan zen, Andoaindik Lekunberrira doana. ANDER OTEZABAL

NAIARA GARZIA

Herenegun Plazaola Natur Bidea txirrindulariz eta korrikalariz bete zen. V Mendi-Bizikleta Martxa Plazaolatik Barna eta II. Maratoi Erdia ospatu baitzituzten Europako Natur Bideen Egunaren barruan.

Aldez aurretik izena 300 pertsonak eman zuten, 200 menditxirrindulariaren parte hartzeko eta 100 korrika, baina antolatzaleek eman dituzten datuen arabera, azkenean 700 lagun inguru bildu ziren, egunean

bertan askok izena eman baitzuten. Antolatzaleek azaldu dutenez, «lehenengo urtean baino jende gehiago bildu da».

Txirrindulariaren parte hartzaileek izena eman zuten, eta goiztiarrenak eta ibilbiderik luzeena aukeratu zutenak Andoaingo Goiko Plazatik atera ziren 10:00etan. Hauek 40 kilometro egin zituzten. 15 kilometrotako ibilbidea (familia martxa delako) ere hainbat txirrindulari aukeratu zuten, eta Leitzako Plazaola geltokitik atera ziren

11:30ean. Txikienek 4 kilometroko ibilbidea egiteko aukera izan zuten. Hauek Lekunberriko Plazaola geltokitik atera ziren, 12:30ean, eta Mugirora joan-etorria egin zuten. Goiz osoan zehar pailazoak ibili ziren jaia alaitzeko.

II. Maratoi Erdia

Maratoiean parte hartu zutenak 09:30ean atera ziren eta lehenak ordu bat, 17 minutu eta 56 segundo behar izan zituen helmugara iristeko.

II. MARATOI-ERDIA ▶ SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

1:17:56. Alfredo Lusarreta.
1:20:06. Ismael Mateo.
1:20:28. Mikel Molino.
1:22:01. Jabier Moreno.

1:25:39. Jonan Rodriguez.
1:26:34. Ander Gomez.
1:26:51. Ibon Iriondo.
1:29:17. Asier Irazabal.
1:29:29. Joxi Lizarralde.

EMAKUMEZKOAK

1:35:17. Ines Donazar.
1:45:41. Ana Altzugarai.
1:52:12. Ainhoa Eskudero.
1:52:42. Angelines Lizarraga.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Zure eskualdeko berrirren bat argitaratu nahi baduzu sarzaitze gure webguneko **Zeuk idatzi** atalean. Zurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia edo helbide elektronikoa utzi.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Pago egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Ebera entregatzen da. 615 75 57 62.

ESKUALDAKETA

Loradenda. Loradenda eskualdakea jubilaziotatik. Laneko materialarekin. Errenta zaharra.

Toki ezin hobean. 18.000 euro. 943 36 75 75/626 50 56 89.

LANA

Zaintzailea. Etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko emakumea behar da. Goizeko 8:00etatik 15:00etara. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 628 22 65 30.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Aitzo. Bergarara joateko autobusa antolatu nahi dute Alton. Urriaren 7an izango da kilometroak eta autobusean joateko 5 euro ordaindu beharko ditu joan nahi duenak. Horretarako 20 laguneko taldea osatu beharko da gutxienez. Izena udaltxean eman behar da.

Tolosa. Aitzol Udala Euskaltegiaren 25. urteurrena dela eta, film proiektzioa izango da Kultur Etxean 19:00etan.

Tolosa. Landibarreko zirkora irteera antolatu du Alpino Uzturre mendiko elkarrekin iganderako. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

Tolosa. Hilaren 17tik 28ra izango da kultur tailerretako matrikulazio epea, 17tik 21era iazko ikasleek izango dute izena emateko aukera, eta 24tik 28ra ikasle berriek. **Tolosa.** Euskara ikastaroak etorkinentzat hilaren 15etik aurrera hasiko dira Kultur Etxean. Ereite elkarrekin antolatuta. Kultur Etxean izango dira larunbatero, 10:00etan.

Tolosa. Aitzol Udala Euskaltegiaren 25. urtemugako bazkaria izango da hilaren 23an, bertan ibilitako guzientzat. Izen ematea, 943 651006.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Argazki, kartel eta material erakusketa Aitzol udal euskaltegian, bere 25. urtemugan.

Tolosa. Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak Aranburu Jauregian. **Zizurkil.** Elbarrena auzoko Arantzazuko Ama elizaren 50. urtemuga dela eta, argazki erakusketa izango da Atxulondo kultur etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Bronte, C. Korreio kalea, 10. 943 676013.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Puntatik puntara

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Etzi amaituko da zuen argazkiak HITZA Argazki Lehiaketara bidaltzeko epea; bidali zuena lehenbailehen



PIRINIOAK ▶

Naroa Uzkudun.

Naroak eta Loreak argazki eder hau bidali digute: «Argazkia pirineoetan ateratakoa da, Aubisque. Eguraldi zoragarria egin zuen eta toureko etapa amaitu eta gero ilunabar ederra ageri da».



TATE MODERN MUSEUM (LONDON) ▶

Joana Martinez


«Tate Modern museotik, irteteen ateratako argazkia da hau. Atzealdean ikusten den hori, Saint Paul's Cathedral delakoa da, askok Mary Poppins filmagatik gogoratzen duguna. Filman, banku izaera ematen zioten katedral honi. Handia eta polita bezain garestia zen bertarako sarrera, beraz, kanpotik ikustearikin konformatu behar izan genuen».



COMO-KO LAKUA (ITALIA) ▶

Mikel Zelaia (Tolosa).

Mikelek Italia aldera egin du bidaia udan. Argazkiarekin batera honako hau azaldu digu: «Argazki hau Italian ateratakoa, Como-ko lakuan (Bellagio herrian) izan ginen 3100 km eginez motorrarekin, eguraldi ederra eta parajea oraindik hobea...».



PUNTA CANA ▶

Izarne Iglesias (Ibarra).

«Egusenti hau Punta Canan ateratakoa da eta beti esan didaten bezala hango egunsetiak beti oso politak izan dira, eta egia da. Merezki izan zuen goizeko 06:00etan jeikitzea egunseti zoragarri hura ikusteko!».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Zorionak Anixeto.
 83 urte beteko ditu.
 Etxekoan eta Migelen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udalteko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...